

Beste esku batzuek onduak

AINHOA SARASOLA. Liburutegi gehienek izaten dute komikientzako txoko bat. Apaletan begiratu azkar bat botaz gero, nabarmen gehiago dira gizonezko egileen izenak: Alejandro Jodorowski, Frederick Peeters, Joe Sacco, Hugo Pratt, Quino... Euskarazko lanei erreparatuz gero, are nabarmenago (Dani Fano, Patxi Gallego...). Eta zer esanik ez ale askoko bildumei dagokienez. Lan horien artean, baina, ia oharkabean, badira emakumeek eginak ere. Ez da zaila Marjane Satrapiren Persepolis eta Maitenaren lanen bat topatzea, zorte apur batekin Diana Raznovich edo Judith Vanistendaelen lanen aleren bat izango da akaso, baina, gainerakoan, emakumezko egileen lan gutxi ageri dira komikientzako apaletan. Literaturan eta ilustrazioan lekua egin dute andreak, baina komikian?

Egun emakumeek askotariko komikiak lantzen dituztela azaldu du Josune Muñoz Skolastika elkarteko kideak. Claire Bretecher, Diana Raznovich eta Lise Myhren lanak jarri ditu horren lekuko. Baina, oro har, abentura, zientzia fikzioa eta fantasia dira gutxien landu dituzten generoak. "Komikiarena oso mundu maskulinoa izan da beti; gizonezkoen esku egon da, eta ez dakit emakumeak gustura egon diren komiki era horretatik datorren irudiarekin, mundua irudikatzeko era horrekin. Genero horretan, "klixe handiko materiala, nahiko itxia izaten dela uste du. "Kontuan hartu behar da abentura eta zientzia fikziozko materialen irudiak oso koloretsuak eta lan handikoak izaten direla, eta horretarako ordu asko behar dira. Eta, dakigunez, gizarteak ezartzen digun rolen banaketatik, andreak ez dugu hainbeste denbora irudietan ibiltzeko.

Horregatik, emakumeek gehiago landu dituzte komiki soziala, autobiografikoa eta umorezkoa. "Bide horiek berriagoak dira, klixe gutxiago dago, eta aukera gehiago ibiltzeko. Argitaletxeek beste gogo bat adierazten dute emakumeen lanak beren zerrendetan sartzeko. Emakumeek eginiko komikietan irudigilea eta gidoigilea pertsona bera izaten da gehienetan, eta, oro har, irudi soilagoak baliatzen dituzte. 'Persepolis' -en oihartzuna

Persepolis-ek lortutako arrakasta jarri du horren lekuko. "Komikizaleok benetan eskertu genuen lan hura; komikia proposatzeko era berri bat ekarri zuen, freskoa, gaztea. Istorio on bat irudietan kontatzeko ez dela irudigile bikaina izan behar frogatzen du Satrapiren lanak, Muñozen ustez. Egile irandarra irudigile bikaina baino gehiago kontalari fina dela dio, eta istorioa kontatzeko modu erakargarria bilatu duela. "Irudiak oso soilak dira, baina soiltasun horretan, oso adierazkorrak. Lan horrek kristoren astindua eman dio komikiaren munduari; agerian utzi du badela halako komikiak irakurtzeko gogo bat eta irakurlego berri bat, eta era errazean kontatu daitezkeela gauzak, ondo kontatzen badira eta onak badira. Halako lanekin "beste begirada bat ekarri diote emakumeek komikigintzari, eta horrekin batera, "beste sentsibiltate bat. Halaber, orain arte landu ez diren gai batzuk landu dituzte, "emakumeenak, edo ohiko gaiak beste modu batera azaldu dituzte. Emakumeen gorputzen tratamendu naturalagoa ere haiei zor zaiela uste du ikertzaileak: "Emakumeak irudikatzeko era oso sexista izan da, eta emakume erreala goak sortu dituzte, baita istorio erreala goak ere, gizonen fantasiatik nahiko urrun. Askok landu den generoa autobiografikoa izanik, emakumeek beren istorioak kontatu dituzte, eta komikia baliatu izan dute haien egoera salatzen.

Dena den, komikiaren barruan betidanik eta ia soilik emakumeek landu duten genero bat badela gogorarazi du Muñozek: "Neskatoentzako komikiak deiturikoetan -Esther y su mundo izan liteke adibiderik argiena-, beti izan dira emakumezko egileak. Enpresa munduak genero horretan ez du arazorik izan emakumeen presentzia onartzeko. Baina kulturaren arlo guztietan gertatzen den bezala, zuzenean material hori mespretxatzea dakar horrek.

Feminismoaren bultzada

Bada emakumeek soilik jorratu duten beste genero bat: komiki feminista. "Oso mundu maskulinoa izanik, emakumeak indar berezi bat izan behar du mundu horretan sartzeko, eta historikoki frogatu da indar hori feminismoak bakarrik eman diela. Emakumeak taldeka antolatu eta emakumeen komiki aldizkariak sortu zituzten AEBetan 70eko hamarkadan, feminismoaren bigarren olatuaren bultzadarekin. Trina Robbinsen lana nabarmendu du Muñozek fenomeno hura azaltzeko. Robbinsek jarri zuen martxan 30 urtez argitaratu zen Wimmen 's Comix aldizkaria, sortzaile gazteen lanak sustatzeko. Emakumea izatea zen lanak argitara emateko baldintza bakarra. "Irudiak ez zuen hainbesteko garrantzirik; kontatzeko zutena hartzen zuten aintzat, eta kontatzeko zuten hori emakumeen mundua zen. Emakume askok izan zuten euren lanak argitara emateko aukera feminismoaren bultzadaz sortutako agerkarietan. Aldi berean, komiki feminista AEBetatik Europara hedatu zen, besteak beste Nuria Pompeya eta Pat Carrari esker. Gehienetan zuri-beltzean, feminismoaren salaketa eta aldarriak lantzeko edo teoria feministak azaltzeko baliatu izan da maiz. Halere, zailak dira topatzen, emakume taldeetan zabaldu baitziren batez ere, barne kontsumorako gehienbat. "Liburutegietan emakumeen komikiak topatzea zaila bada, komiki feminista ez duzu inon topatuko. Mugimendu horrek ez zuen horrenbeste oihartzun izan gurean. Garaiko euskal mugimendu feministak artearen esparruari baino, gehiago heldu zien gizarteko arazoei. Gainera, euskal emakumeek ez zuten AEBetakoek adina prestakuntza artistikorik, eta horregatik hurbildu ziren gutxiago komikigintzara, adituaren ustez. Euskal Herrian emakumezko komikigileei buruz hitz egiteko azterketa sakona egitea falta da, eta zaila da egileen izenak aipatzea. Raquel Alzaterena nabarmendu du Muñozek, baina oro har, Euskal Herrian ere andrazko komikilarien presentzia "eskasa izan dela sumatzen du. "Badira emakume solte batzuk, baina haien izenak erraz ahaztu dira, oso noizbehinkako lana egin dutelako edo lan hori eten egin delako. Fanzineetan eta komiki alternatiboetan aritu izan dira gehienak, taldean, nabarmendu gabe azken batean.

Napartheid aldizkarian, adibidez, bakarrak izan ez baziren ere, Irene Borda, Alazne Odriozola, Maite Martinez, Agurtzane Villate eta Amaia Martiartu aritu izan ziren. Hain zuzen, komikiaren "mundu erabat matxista salatzen, emakumeek eginiko lanekin soilik osatutako alea koordinatu zuen Martiartuk. Hartarako egileak topatzea ez zela batere zaila izan gogoan du. " 'Ez daude asko, baina topatuko ditugu', pentsatu genuen. Ahoz aho zabaldu genuen; Arte Ederretako ikasleak izanik, ingurukoei aipatu genien, eta prest agertu ziren. Normalean komikigintzan aritu gabeak ziren gehienak, "oso ondo marraztu arren, baina ale berezirako hainbat biñeta ondu zituzten. Aizan... izenburupean, emakumeek eginiko lanak baino ez zituen jaso aldizkariak 1996ko udaberriko 18. alean. Eva, Itsasne, Itzal, Argider, Amaia, Marie... ia 30 emakumek sortutako istorioekin osatu zuten alea. Emakumeak komikiaren munduan sartzeko garai ona dela uste du Muñozek. "Kosta izan da, baina emakumeek lortu dute ilustrazioaren munduan tokia izatea, eta irudi bikainak egitea haur eta gazte literaturan, helduentzako bildumetan... Ilustratzaile oso onak daude egun, eta uste dut une egokia dela, inork interesa badu, pixkanaka komikira hurbiltzeko.

Josune Muñozen hiru gomendio

'LE JEU DES HIRONDELLES'

Egilea. Zeina Abirached.

Argitaletxea. Cambourakis.

Bonbak ari dira Beiruteko zerutik 1984ko gau batez, eta eraikin bereko bizilagun guztiak etxe berean bilduko dira gaua pasatu arte, bonbardaketa egun guztietan egin ohi dutenez. Etxeko alabaren begiekin kontatuko ditu Abirachedek gerra garaian libanoarrek bizi izandakoak eta, aldi berean, bere familiak jasandakoak.

'BRODERIES'

Egilea. Marjane Satrapi.

Argitaletxea. L ' Association.

Persepolis arrakastatsuaren ondotik komikilari irandarrak ondutako lana da.

Gizonak siestan direla, emakumeak egongelan bilduko dira tea hartzera, eta bihotza irekiko diote elkarri. Bizitza aldatu dieten bizipenak kontatuko dizkiote elkarri: hitzartutako ezkontzak, desleialtasunak, ezkondu arte birjintasuna gorde beharra....

'ALICIA EN UN MUNDO REAL'

Egileak. Isabel Franc eta Susanna Martin.

Argitaletxea. Norma.

Lan autobiografikoa da, bularreko minbizia izan duen andre baten kronika.

Komikiko Alicia ez da fantasiazko mundu batean bizi; zoritxarrez, andre askorentzat erreala den esperientzia izan du. Ordea, gaitzak ez dio umorea ostu, eta horixe baliatu du istorioa kontatzeko.